

## EUSKARA BATZORDEAREN MEMORIA: 2.011.urteaz

*Euskara, Euskara, jalgi hadi plazara!  
Euskara, Euskara, jalgi hadi mundura!*

.....  
*Euskara, Euskara, jalgi hadi Epaitegietara!*

Horra hor, 2.011 urtean gure Euskara Batzordeak burututako lana:

**2.011ko otsailaren 3an,** *"Epaitegietan euskara hutsez, euskaldunon eskubidea, nahitanahiez!* kanpaina barruan, gure Euskara Batzordea garai hartako Bilboko Udalarekin bildu zen.

**2.011ko otsailaren 14an,** *"Epaitegietan euskara hutsez, euskaldunon eskubidea, nahitanahiez!* kanpaina barruan, gure Euskara Batzordea E.A.E.ko Fiskal nagusia den Juan Ramón Calparsoro jnarekin bildu zen.

**2.011ko otsailaren 24an,** *"Epaitegietan euskara hutsez, euskaldunon eskubidea, nahitanahiez!* kanpaina barruan, gure Euskara Batzordea LAB sindikatuarekin bildu zen.

(Horren ondorioz, pasa zen 2.011ko maiatzaren 27an Sindikatu horretako abokatuok zenbait konpromezu hartu zituzten, Euskara bultzatzeko Lan Arloko Epaitegietan.)

**2.011ko martxoaren 11an,** *"Epaitegietan euskara hutsez, euskaldunon eskubidea, nahitanahiez!* kanpaina barruan, gure Euskara Batzordea ELA sindikatuarekin bildu zen.

**2.011ko martxoaren 15ean,** *"Epaitegietan euskara hutsez, euskaldunon eskubidea, nahitanahiez!* kanpaina barruan, gure Euskara Batzordea (Gontzal eta Aitzol) Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuordea den M<sup>a</sup> Victoria Cinto anderearekin bildu zen.

**2.011ko martxoaren 16an,** *"Epaitegietan euskara hutsez, euskaldunon eskubidea, nahitanahiez!* kanpaina barruan, gure Euskara Batzordea Bizkaiko Foru Aldundiarekin bildu zen.

(Horren ondorioz, pasa zen **2.011ko azaroaren 2an** Bizkaiko Foru Aldundia eta Bizkaiko Abokatuen Bazkunak hitzarmen bat sinatu zuten, Euskara bultzatzeko. Hitzarmen hori sinatu zuten gure Abokatuen Bazkunaren partetik, Nazario Oleaga dekanoa, eta gure Euskara Batzordekide diren Gontzal eta Aitzolek).

**2.011ko martxoaren 23an,** gure Euskara Batzordeak, aho batez, gure Bizkaiko Abokatuen Bazkunari eskatu zion *Etxeko indarkeriari buruzko zerbitzuan, biktimei laguntza juridikoa euskaraz eskain diezaietela.*

**2.011ko apirilaren 15ean**, gure Bizkaiko Abokatuen Bazkunak *17.Korrikan* parte hartu zuen, konkretuki *1.976.kilimetroan Korrikaren lekukoa* eraman genuen, "La Salve" zubitik Isosakiren etxeorrazetaraino.

**2.011ko uztailaren 6an**, gure Euskara Batzordea (Gontzal eta Aitzol) Madrilen bildu zen "*Eremu urriko hizkuntzen Europako itunaren betetzea ikuskatzen duen adituena batzordea*"rekin.

**2.011ko abenduaren 14an**, "*Epaitegietan euskara hutsez, euskaldunon eskubidea, nahitanahiez!*" kanpaina barruan, gure Euskara Batzordea "U.E.M.A." ("Udalerri euskaldunen mankomunitatea")rekin bildu zen.

*BESTELAKOAK:*

Gure Euskara Batzordekide den Leixuri Arrizabalagak "*U.E.M.A*"n parte hartzen du.

Gure Euskara Batzordekide den Esteban Umerez, 2.011ko abenduaren 1ean gure Bazkunean egindako hauteskundetan hautatua izan zen, Gobernu Batzordekide izateko.

Eta bukatzeko, gure Euskara Batzordekide den Txema Azkuenagak bertan-behera utzi ditu gure Euskara Batzordearen bilerak, Bilboko Udaletxeko zinegotzia hautatua izan zelako.

.....  
OHARRA: 2.008ko maiatzaren 20tik aurrera, "***Epaitegietan euskara hutsez, euskaldunon eskubidea nahitanahiez!***" gure kanpaina abian dago, urte hauetan zehar kanpaina horren berria eman genion, besteak beste honako jendeari:

Bizkaiko Lurralde Auzitegiko presidentea den Angel Gil jnari

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lan Saileko presidentea den Garbiñe Biurrun andereari.

Gaur egungo Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuordea den M<sup>a</sup> Victoria Cinto andereari.

Euskaltzainburu den Andres Urrutia jnari.

"Consejo General del Poder Judicial" delakoaren partaidea den Margarita Uria andereari.

Eta baita, 2.010eko urriaren 6an, E.T.B.1ean "*Arratsaldero*" saioan zehatz-mehatz eztabaidatu zuten "***Epaitegietan euskara hutsez, euskaldunon eskubidea nahitanahiez!***" gure proposamenaz.

Bilbon, 2.012ko martxoan  
Euskara Batzordea-k